

X'GN. URTEA, 1960

EPAILLA-JORRAILLA

(LARREA-ZORNOTZA)

Eleiz batzar nagusia

Eleizeak ba-dau bere Artzaiña, Aita Santua, gaur XXIII'garren Joan agurgarria. Jesukristoren ordezkari dala, Errroma'ko aulkigaraian jarri zanetik, ba-ditu biotz barruan bere ardura ta kezkak.

Ardura ta kezka orreitan bi, lenen Kristoren jarraille guztion batasuna, ta bigatzen, kristau guztion Jainko-bizitza bero-gartsua.

Gizonen artean, ezta arrigarri, beti sortu izan dira eztabaideak; eta gizonez osotua dan ezkerro, Eleiz-altzoan be bai. Olan, eztabaidea batzuk zirala-ta, bide erdian geratuak doguz, esate baterako, sortaldeko kristau asko; Kristoren jarraille, Aren sede ta siñiskaiak, Aren agindu ta ikertronak, baiña gauza bat ontzat ez artzen: Errroma'ko Aita Santu Kristoren ordeckoaren esanera bizi nai ez. Origaitik, ba, gaurko Aita Santuak, Batzar andi baten bitartez, batasunera dei dagitse kristau sakabanatu guztioi.

Beste gaitz bat. Kristau asko ta asko, izeenez bai, baiña izanez ez dira Kristoren beinetako jarraille, kristau zintzo bateri dago-kion goi-bizitza ez daroelako. Munduko txepelkerietan —diru, nagusi-nai, atsegin—

goiraiño sarturik dabilta, ta olangoak ez dira Kristo'renak erdizka baiño; ardi galdu edo bidekatuen antzeko doguz. Zer egingo? Artaldetik bota? Baiña Kristok arima guztien alde ixuri ehan bere odola Gurutzeko augean; guztiok nai gaitu zeturako. Bere ordezkank be ertain jardun bear, nai-ta-ez. Ardi otz, txepel, bildan, koldarrak berotu, goizaletu. Kristo'ren egiazko jarraille egin. Or Aita Santuaren zer-egiña.

Gauza biok gozotan izanik, Batzar Nagusia bat egingo da; au da. Eleiz-batzar nagusia. Lendik be, gizaldiak zeat, onako asko egin ditu Eleizeak. Oraingoa, onelangoetatik XXI'gartena izango da; Batikano'ko II'garrrena. Gertaera andiak darabillez Erroma'n eta mundu guztian.

Guk be geure alegintxoa egin bear dogu; bai irakatsiz, bai otoitzaren bidez. KARTEL'ek, beraz, batzar onen inguru ta buruzko izpar, erabagi, irakatsi ta beste xeetasun urtenenak, pozarren argitara emongo ditu.

Bai ta otoitz bero bat irakurle guztieri eskatu be, Aita Santu agurgarriaren arnas andiko asmo ta lanak, Jainkoak oso-osoa onetsi ta bete dagizan.